

Dena dela, lhardunaldiek beraiek bi gauza erakutsi zituzten: batetik, azken urteotan gertaturiko tirabirak eta hausturak gainditzeko oraindik bidea egin behar dela; eta bestetik, ekinaldia ahal zenik bateratuena izanik ere, erakunde publikoek ez dituztela behar den bezala balioztatzen herritarren aldetik eragindako horrelako ekimenak. Honetan ere, batez ere alor honetan, heldutasunerako bidea egin beharra dauka gure Herriko kultur eta hizkuntza politikak; ez dauka nagusikeriaz eta bazterkeriaz bere ahaleginik biziarena eta bere indarrak handiena euskal gizartea euskalduntzeko ematen ari den militziantzia itotzerik. 25 urtetako mugimendu sozial bikain eta mi-resgariaren aurkako delito historikoa litzateke horixe.

«Euskaldunon EGUNKARIA»

Euskal egunkaria ez da dagoeneko urrutirako ametsa. Udazken honetan bertan kalean izango dugu bat; datorren urtean, dirudenez, beste bat.

Orain dela urtebete euskal egunkariaren asmoaren inguruan bilduriko talde informal hura gero *Egunkaria sortzen* talde eragile gisa handitu eta eratu zen. Geroago mugimendu sozial handi bihurtu zen, euskaldunon egunkariaren aldeko kanpaina zabalean. Jendetza hori, enpresa bihurtu da azkenik, bere diru-kapital, lantegi, langile, tresneria eta guzti, *Euskaldunon Egunkaria* ateratzeko.

Euskaldunon EGUNKARIA du izena, Euskaldun gehienona (inon ba al dago herritar guztientzako egunkaririk?) izan nahi duelako, eta halaxe izateko asmo eta helburu sendoa duelako. Egunkari hau ez da instituzionala; baina erakunde publikoen laguntza behar du eta eskatzen du, batetik, eta horien partaidetza instituzionalerako irekita dago, bestetik.

Zoritxarrez Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez du oraingoz erantzunik jaso *Euskaldunon Egunkaria*-ren eskabideak eta eskaintzak. Bestalde, eta eza-guna denez, Jaurlaritzak beste egunkari 'instituzional' ('gubernamental?') batetarako proiektua egitea erabaki du. Sarritan esan izan da, euskal kulturgintzan beti binaka kaleratzen direla proiektuak; hori okerra izan bada, oraingoa okerragoa iruditzen zaigu, euskal gizartea, euskaldungoa, zatikatzeko edo zatiketa finkatzeko eta areagotzeko asmoz bait dator egunkariaren proiektu ofiziala, Kulturako sailburuaren hitzak aintzakotzat hartzen baldin baditugu, egunkari 'instituzionala' bloke politiko jakin baten egunkaria izango zela baieztatu bait zuen, Jose Ramon Belokik egindako 'proiektua' aurkeztean, uztaileko azken egun haietan, gehienon oporren bezperan. Hitz zorigaiztokoagorik nekez entzun zitekeen Kulturako sailburuarengandik.

Nabaria zen, Jose Ramon Belokik euskal egunkari 'hipotetiko' batetarako lerro nagusiak diseinatzen ari zela, *Egunkaria Sortzen*-ek egindako

proiektuarekiko hurbilketa eta baterakortasuna bilatu beharrean, urruntasuna eta dibergentzia bilatzen zuela. Zoritxarrez, euskal egunkariaren inguruan gertatu dena arazo zabalago eta larriago baten sintoma eta adierazgarri da: hots, euskal gizartearen eraketa sozio-politikoarena, erakunde zibiko-herritarren eta erakunde publikoen arteko artikulazioarena... Azken batez, Euskal Herriarentzako demokrazi ereduarena.

Dena dela, gorabehera triste eta gogor guztion artean bada ere, udazken pozgarria izango da aurtengo hau euskaldun guztiontzat, *Euskaldunon EGUNKARIA* eskuetan izango dugunean. Azken batez, euskal egunkariaren urtea deklaratu du aurtengo hau Euskal Herri euskaldunaren historiak.

Aldizkari bat: *Herria-2000-Eliza*

«Euskara eta Euskal Kultura» izeneko zenbaki monografikoa argitaratu berria du *Herria-2000-Eliza* aldizkariak (110. zenbakia). Kristauen arteko eritzi eta gogoeta-aldizkaria da Herria-2000-Eliza. Ez da lehen aldia hone-lako zenbaki monografikoa egiten duela aldizkari honek.

Erdibana edo, euskaraz eta gaztelaniaz dago idatzita zenbaki hau. Alderdi sozio-politikoetik eta teologiko-pastoraletik begiratuta, hainbat artikulua interesgarri aurki daitezke. Israelgo Kultura eta Hezkuntzako Ministraritzako Zuzendari-ordea den Arie Shoval-ekin elkar hizketan hebraieraren pizkundearen esperientzia erakusten da; beste elkar hizketa batetan, berriz, Txillidaren hitzezko testigutza jasotzen da: «El euskera es decisivo en la identidad de este pueblo».

Bereziki deigarria gertatu zaigu atariko «Carta a un bilingüista» editoriala; estilo oso zirikatzailez agertzen du demokraziaren izenean edo, elebitasuna defendatzen duen erdaldunaren kontradikzioa: «¿Te has percatado que aquí los únicos bilingües son los euskaldunes?»

Liburu bat: *Euskaldunaren hizkuntz eskubideak*

Gidaliburu deritza; eskuliburu izan zitekeen, neurritz txikiagoa izan balitz. Izan ere, euskaldunak etengabe eskuetan erabiliko duen liburua izan nahi bait du.

Kaleratu berria du EKBk liburu hau, aski originala euskal bibliografian; eta seguruenik erdarazkoetan ere bai, euskaldunona bezalako hizkuntz egoerari, juridikoari eta sozialari erantzuten bait dio liburu honek.